

**Kursaal Eskura proiektuarekin bat eginez, Kursaal Zentroak berak atontzen duen kultur-programazioa Urola Kostako herritarren eskura jarriko dute Getaria, Zumaia, Zarautz eta Orioko Udalek.**

Donostira gerturatzeko aukerak, horrela, **azaroaren 9an eta urtarrilaren 15ean** izango dira.

Egun horietan kontzertuak honako hauek izango dira: **Bamberger Symphoniker eta Yuja Wang & Chamber Orchestra of Europe.**

**Kontzertu horiek gozatu nahi izanez gero, pausu hauek jarraitu beharko dira:**

**Prozedura:**

- Interesdunek Kursaal Elkarguneko web orria bitarteko dela erosi beharko dute kontzerturako sarrera:  
[http:// www.sarrerak.kursaal.eus](http://www.sarrerak.kursaal.eus)
- Behin sarrera erosita, interesdunek euren autobuseko tokia erreserbatu beharko dute:  
Getaria: [info@getariaturismo.eus](mailto:info@getariaturismo.eus) / 943 140957  
Zumaia: [kulturetxea@zumaia.eus](mailto:kulturetxea@zumaia.eus) / 943 861056  
Zarautz: [kultura@zarautz.eus](mailto:kultura@zarautz.eus) / 943 005120  
Orio: [orioturismo@gmail.com](mailto:orioturismo@gmail.com) / 943 835565
- Autobusa Zumaia, Getaria, Zarautz eta Oriotik abiatuko da, eta Urola Kostako lagunak jasotzeko, honako lekuetan egingo du geldialdia:  
Zumaia: 18:40, zineetako autobus geltokia  
Getaria: 18:50, autobus geltokia  
Zarautz: 19:00, Batzoki aurreko autobus geltokia  
Orio: 19:10, geltokia
- Ordu Gaztea: langabetuek eta 30 urtetik beherako interesdunek, sarrerak 3 euroko prezioan erosi ahal izango dituzte. Horretarako sarrera (autobuseko tokia bezalaxe) erreserbatzea ezinbestekoa izango da:  
Zumaia: 943 861056  
Getaria: 943 140957  
Zarautz: 943 005120  
Orio: 943 835565  
Behin beharrezko erreserbak eginda, kontzertu/ikuskizuneko egunean bertan, interesduna Kurasaaleko leihatilara gerturatu beharko da eta bere adina egiaztatu ondoren, sarrera ordaindu (sarrera hauen kokapena egun horretan leihatilan erabilgarri dauden sarreren arabera izango da).
- Kursaal Eskura egitasmoak Urola Kosta eskualderako atondu duen hitzordu hauetarako izen-emateko epea (autobusa / Ordu Gaztea):
  - Bamberger Symphonikerren emanaldia ikusteko autobusaren erreserba azaroak 3a arte egin daiteke (sarrera norberak erosita).
  - Yuja Wang & Chamber Orchestra of Europearen emanaldira joateko autobusaren erreserba urtarrilaren 9a arte egin daiteke (sarrera norberak erosita).

Kontzertuak 20:00etan hasiko dira.